

taren liburukoak baino landuagoak direla marrazkiak oraingoan. Barruan daukadan guztia eman diot proiektuari, gure proiektua baita. Orduko hura, 1512arena, enkargua izan zen.

Ilustratzaile lana ez da gozoa. Lan asko eta etekin gutxi. Badago horrik bizitzetik Euskal Herrian?

—Hostalaritzan urte asko egin dut, eta batzuetan egiten dut erdi eta erdi. Eta horrekin berdintzen dut soldata...

Gora-beheratsua zuen ofizioa...

—Bai, batzuetan lan asko, bestetsuetan ez hainbeste. Boladak egoten dira, baina aspaldian beti daukat enkaguren bat edo beste.

Euskal ilustratzaileen artean bada gure ezelako korporatibismoa?

—Izaten ditugu gure topaketak, eta gure artean giro polita dagoela esango nuke, baina ni nahiko *frankotiradorea* naiz. Asko marrazten dut eta ez daukat astirik *sozializatze*ko. Nafarroa Oinezen elkartzen gara, karikatutarak egiteko.

Behin esan zenuen ez zela Marvel zalea. Bitxia, ezta?

—Superheroiak ez ditut atsegin, nahiago ditut benetako heroiak, hezur-haragizkoak. Esaterako, gure liburuetan agertzen diren Jaso anaiak benetako heroiak dira, ez oso ezagunak, baina anaiak ausart eta jatorrak, azkenera arte Nafarroaren alde egin zutenak.

Marvelek ere baditu heroi traketak, humanotik badutenak...

—Bai, badira, baina nik nahiago ditut gizaki-gizakiak.

Eskuz edo ordenagailuz marrazten duzu?

Erdi eta erdi. Arkatzarekin egiten dut marrazkia, eta kolorea beti ordenagailuarekin. Hasieran olioarekin ibili nintzen, baina ez da batere praktikoa. Baina horrek "kategoria" ematen du...

—Hori bai (barreak), baina ez da praktikoa ez errentagarria. Guk egiten duguna Nafarroan beti izango da tebeicos.

Perfil

Un artista enamorado de Nafarroa y de Iruñea

Junto con **Joseba Asirón**, está ilustrando cuatro tomos de la historia de Euskal Herria, un proyecto colosal

BILBAO – De pequeño iba para otra cosa, pero las historietas de Mafalda corrigieron esos empeños y lo arrastraron por la vereda de la ilustración. Emborrnaba cuadernos y pupitres y decidió convertir en oficio su gran afición. Le ha costado (y aún hoy le cuesta), pero se mantiene firme, a pesar de que durante largas rachas vive más en el blanco del papel que en la calle.

Ha colaborado en revistas como *Nabarra* o *Merindad*, y en periódicos como el clausurado *Egunkaria* o *Berria*. Curioso: a través de la ilustración se ha acercado más a Nafarroa, su tierra. Fue otro enamorado del Viejo Reyno quien le dio el empujón definitivo: "A través de Nabarraalde conocí a Joseba Asirón, con el que he colaborado en la reconstrucción ilustrada del castillo de Amaiur". Además, elaboraron juntos el cómic *1512. Nafarroa, amets urratua*, y ahora están metidos de lleno en otro proyecto mastodóntico: la historia de Euskal Herria. — I. M. E.

“Liburuak errealitatearen antza izatea ez da kasualitatea”

Koldo Izagirrek ‘Dumitru’ aurkeztu du, gazte literaturan kokatzen den eleberria


✎ **Marta Esnaola**
📍 **Ruben Plaza**

DONOSTIA – Etorkinak, identitatea eta bakardadea gaur egungo gizartean pil-pilean dauden gaiak dira. Koldo Izagirrek horiek guztiak biltzen ditu bere azken eleberrian, *Dumitru* izenekoan. Erein argitaletxearekin plazaratutako liburua gazte literaturan kokatzen da, eta gazteak eta helduak nahasten dituen istorioa eskaintzen du, pertsonaia xamurrak protagonista izanik.

"Liburuak errealitatearekin daukan antza ez da kasualitatea", adierazi zuen idazle donostiarrak atzoko aurkezpenean. Gatazka soziala agertzen da, benetakoa, baina hala ere, pertsonaien eta gertakarien lotura fikzioa dela azaldu zuen. "Benetako estampa bat dago, eta jokabide desberdinak erakusten ditu", gaineratu zuen Izagirrek. Bestalde, "nobela beltzaren ikutua" ere badu eleberriak.

Argumentuari dagokionez, Dumitruen istorioa kontatzen du. Hau errumaniarra da izenez eta jatorriz, eta ordu eta leku jakin batean egoiteak arazoak emango dizkio gazte atzeritarra izateagatik. Hala ere, ikasgelako bere lagunek, eta bereziki Olatzek, maite dutela erakutsiko diote.

Bestalde, idazkera asko zaindu du donostiarrak. Poesia liburua idatzi dituen arren, oraingo honetan estilo hori alde batera utzi du. "Ez dago poetika testuan, pertsonaien bidez haserrea eta xamurtasuna islatzen dira, baina ez dira estiloari esker lortutakoak", adierazi zuen. Kontuan artzeko beste detalle bat liburua luera da. Eleberriak 73 orrialde ditu, eta Izagirrek luzera hori aukeratzeko bere arrazoiak dauka. "Oso garrantzitsua da gazteek liburua bukatzea", esan zuen, eleberria 12-14 urte bitarteko gazteei zuzenduta dagoela gaineratuz. "Gazteen artean arrakasta izaten duten



Koldo Izagiri idazlea, atzo Donostian.

liburuak nobela motzak izaten dira", gehitu zuen.

GAZTE LITERATURAREN ARAZOAK Izagirrek gazte literaturaren egoera kritikatu zuen, beste alde batetik. "Maita baxuagoko literatura bezala tratatzen da, baina ez da hala", azaldu zuen, eta askotan idazleak kritiken menpe daudela gaineratu zuen.

"Adin horretako literaturan ez daude kritikoak, irakurleak baizik —jarraitu zuen—. Gainera, gazteek ez daukate irakurtzeko prestakuntzarik". Horregatik, idazlearen ustetan beharrezkoa da liburua ondo egina egotea. Bestela, eleberria "bolatila" izango da. "Bukatzen ez badu, behintzat, segurua da ez dela liburua gehiago gogoratu", esan zuen. ●

Eibar, Premio Nacional de la Confederación de Fotografía

GALARDÓN – Vilanova i la Geltrú aco-
gió el fin de semana XXVIII Congreso de la Confederación Española de Fotografía, en el que se entregaron los Premios Nacionales de Fotografía. El Premio Mecenaz le fue concedido al Ayuntamiento de Eibar, y se trataba de una propuesta que había hecho la sección de Fotografía del Club Deportivo de la localidad. Esta agrupación también había sido galardonada en 2008. — N.G.

Pettiren Kursaleko kontzertua datorren otsailean izango da

MUSIKA – Pettik ostiral honetan Kursalean eskaini behar zuen kontzertua hila bete batzuk atzeratu behar izan da arrazoi ezberdientzat. Azkenean, abeslari nahiz musikari beratarra datorren urteko otsailaren 2lean izango da Kursaleko Ganbera Aretoan, Rockero nafarrak auditorioan egin zuen azkeneko ikuskizuna *Sortuko dira Besteak II* izan zen, lehengo urteko abenduan. — N.G.

Comienzan las I Jornadas sobre Arquitectura Vasca en el exilio

UPV/EHU – Hoy y mañana se celebrarán las I Jornadas sobre la Arquitectura Vasca en el Exilio, en el paraninfo de la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de la UPV/EHU en Donostia, en el que la entrada será libre. En las ponencias, harán especial hincapié en la actividad de Imanol Ordorika, y su hija, docente en la Facultad de Arquitectura de UNAM, México, participará en las jornadas. — N.G.

dizo ugari pintatu ditu ilustratzaileak; tartean, Orreagako segada.

